



Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzaren Ataleko Plus 55 udal programak, Donostia Kulturarekin eta Ingurumen Zuzendaritzarekin elkarlanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren laguntzarekin, 2022ko urritik 2023ko maiatzera bitartean, **ingurumen-sentsibilizazioko** tailer bat egingo du, tokiko ingurumen-arazo nagusien eta horiek klima-aldaketan duten eraginaren berri emateko. Zientziarekin zerikusia duen herritar-ekimen hori, hain zuzen ere Plus 55 programak antolatutakoa, Carlos Pérez Olozagak proposatu zuen: kimikaria da (dagoeneko erretiratu dago eta Kalapie elkarteko kide da) eta hura da programaren edukiak zuzendu eta koordinatzen dituen.

Ernest Lluch Kultur Etxeko areto nagusian egingo da tailerra.

Tailerra astean behin egingo da astelehenetan, bi taldetan: 10:00etatik 11:45era eta 12:00etatik 13:45era; 17 saio egingo dira ikasgelan (astelehenetan) eta 11 bisita/txango gidatu (goiz osoa).

Horretarako, arlo profesionalean eskarmentu handia duten hizlariak eta gidariak izango dituzte.

Bereziki nabarmendu eta eskertu behar zaie aurreko tailerretako 12 parte-hartzaileei, hainbat komunikazio eta txango gidatu egiten ere parte hartuko baitute, haien ezagutza eta interes pertsonala kontuan hartuta.

Ikasgelan zein bisita/txangoetan jorratuko diren gaiak berriak dira; hau da, ez dira aurreko zazpi edizioetan landutakoak.

Aurrez aurreko tailerrak 50 euroko kostua izango du, katamaran eta autobus-txangoak barne.

Gehienez ere 50 pertsona onartuko dira talde bakoitzeko.

Ikastaroa online modalitatean ere eskainiko da: programatutako 11 bisitetatik 9 bisita/txango gidatu egingo dira (Donosti-Flysch Zumaia katamaran txangoa barne).

Online izena ematen dutenentzat, tailerraren kostua 40 eurokoa da.

Unean-unean Covid-19aren aurkako protokoloak agintzen duena alde batera utzita —hain zuzen ere aerosolak arnastearen ondorioz kutsatzeak ekiditeko— CO2 maila neurtuko da (aurreko ikastaroetan egin zen moduan) bai ikasgelan bai txangoetako autobusetan, aireztapen-maila egokia bermatzeko.

Irailaren 27an, 11:00etan, informazio-hitzaldi bat izango da Ernest Llucho areto nagusian eta bertan azalduko dira tailerraren helburuak eta programaren edukia.

Matrikulazioa irailaren 28tik aurrera izango da, informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan posta elektronikoko bidez helbide honetan: jramon_duarte@donostia.eus

Jarraian ageri da katamaran txango baten wikiloc esteka, tailerreko talde batek Txingudi badian eta Iparraldeko itsasertzean Miarrizteraino egindako txangoa ikusteko.

<https://es.wikiloc.com/rutas-lancha-motora/excursion-catamaran-hondarribi-txingudi-biarriztaller-55-ma-g-1-42997272>

2022-2023 TAILERRAREN PROGRAMA

A). Anoetako Ernest Lluch Kultur Etxeko ikasgelan egingo diren saioak.

1- Gipuzkoa, energia-komunitateetan aurrera eginez.

José Ignacio Asensio. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatua.

Mónica Pedreira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zuzendaria.

2022ko urriaren 10a.

2- Trantsizio energetikoa bai, baina nola?

Julen Rekondo. Kimikaria eta ingurumen-komunikatzailea. Ingurumen Kazetaritzaren Euskadiko Saria jaso zuen 2019an.

2022ko urriaren 24a.

3- Ingurumen-zarataren kudeaketa hiri-garapen jasangarrian.

Alberto Bañuelos. Industria ingeniaritzan doktorea. AAC (Centro de Acústica Aplicada) zentroko zuzendaria.

2022ko azaroaren 7a.

4- Hiria, arkitektura eta diseinua: jasangarritasuna, bizi garen espazioaren elementu eraldatzaile gisa.

Xabier Pérez de Arenaza. Arkitektoa. Cluster Habic-eko berrikuntza-proiektuen arduraduna.

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko (COAVN) jasangarritasun batzordearen zuzendaria.

2022ko azaroaren 28a.

5- Putinek Europako Itun Berdea deuseztatu al du? Energiaren eta ingurumenaren geopolitika.

Jesús Alquézar Sabadié. Europako Batzordeko analista sozioekonomikoa, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia Bruselan.

2022ko abenduaren 12a.

6- Argi-kutsadura: XXI. mendeko ingurumen-, energia-, zientzia- eta kultura-erronka. Susana Malón, argian eta argi-kutsaduran espezializatutako fisikaria. Lumínica Ambiental enpresako zuzendaria eta Comité Español de Iluminación batzordeko kidea. Starlight auditorea.

2022ko abenduaren 19a.

7- Ibaiak berriz konektatu presak kenduz: Enobieta eta beste adibide batzuk. Arturo Eloegi. EHUko Ekologia katedraduna.

2023ko urtarrilaren 9a.

8- Bioaniztasunaren krisia-Klima-larrialdiaren krisia. Azpiegitura berdeen zeregina. José Ignacio Asensio. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatua. Mónica Pedreira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zuzendaria.

2023ko urtarrilaren 16a.

9- Uliako plan berezia. Marko Sierra, ingeniari agronomoa. Josu Benaito. Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen zuzendaria.

2023ko urtarrilaren 23a.

10- Lurreko 100 izar geologiko. Asier Hilario, geologian doktorea, Euskal Kostaldeko Geoparkearen zuzendari zientifikoa eta Ondare Geologikoaren Nazioarteko Batzordeko presidentea.

2023ko urtarrilaren 30a.

11- Dioxinak: ikuspegi orokorra eta historia. Yanko Iruin, EHUn Kimika Fisikoan katedraduna (erretiratua) eta dibulgatzaile zientifikoa.

2023ko otsailaren 6a.

12- Espainiako 14 hiritan airearen kalitatea denbora errealean neurtzeko CWCA (Cycling With Clean Air) proiektua. Carlos Pérez Olozaga, kimikaria (erretiratua eta Kalapiekoko kidea).

2023ko otsailaren 13a.

13- Ikerketa arkeologikoak eta ingurumenekoak Praileitz haitzulo paleolitikoan (Deba). Xabier Peñalver, arkeologian doktorea, Aranzadiko ikertzailea, eta hainbat argitalpenen egilea da.

2023ko otsailaren 20a.

14- Hiria. Osasuna prebenitzeko hiri- eta ingurumen-faktoreak. Jesús Ibarluzea, biologoa, psikologoa eta Osasun Publikoan doktorea. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuko CIBERSEP taldeko ikerlari arduraduna.

2023ko otsailaren 27a.

15- Tailerreko 1. taldeko komunikazioak.

15.1- Naturan atzeman daitezkeen irudiak.

Fernando de Carlos, erretiratua

15.2- Elhuyar anaiak eta wolframioa.

Maite Irizar, kimikaria (erretiratua).

15.3- Bigarren planeta eta energia nuklearra.

Mertxe Jauregi, irakaslea (erretiratua).

15.4- Gizateriaren historiaurrea.

Javier Navascués, historiaurrearen zale eta aditua (erretiratua)

2023ko martxoaren 6a.

16- Tailerreko 2. taldeko komunikazioak.

16.1- Arte-programa esperimentalak naturan.

Carmen Monreal, irakaslea eta artearen zalea (erretiratua).

16.2- Hiru R-ak eta ekologia emozionala.

Valeriano Pache, irakaslea (erretiratua).

16.3- Auzotarren elkartasuna, erakundeek erantzuten ez dutenean.

Carmen del Hierro, Kaleko Afari Solidarioak kolektiboko kidea (erretiratua).

16.4- Ibilbide bat energia berriztagarrietan.

José Miguel Gállego, industria-peritua (erretiratua).

2023ko martxoaren 13a.

17- Ikastaroaren analisia eta hobetzeko proposamenak. AMAIERA.

2023ko apirilaren 24a.

B). Bisitak/txango gidatuak.

Kanpoan egiten direnak programatutako astea baino egun batzuk lehenago finkatuko dira, eguraldiaren eta gidariak dituen tarte libreen arabera.

1- Donostia-Zumaiako Flysha zeharkaldia katamaranean.

Gida: Ane Sedano Tellechea, geologoa eta dibulgatzailea Luberri Oiartzungo Ikasgune Geologikoan.

2022ko urriaren 17ko astea.

2- Bisita Cristina Ene parkeko zuhaitzira.

Gida: tailerreko biologo Lola Jurado (erretiratua)

2022ko azaroaren 2ko astea.

3- Txingudi Ekoetxea. Bisita gidatua Plaiaundiko padurara.

2022ko azaroaren 8, 9 eta 10ean.

4- Putzueta Udal Haztegia

2022ko azaroaren 14ko eta 21eko asteak.

5- Luberri, Oiartzungo Ikasgune Geologikoa eta Arditurriko meazuloak.

2023ko martxoaren 23an, 24an eta martxoaren 2an.

6- Historiaurrearen bailara (Deba). Gure arbasoen paisaia harrigarria.

Asier Hilario, geologian doktorea, Euskal Kostaldeko Geoparkearen zuzendari zientifikoa eta Ondare Geologikoaren Nazioarteko Batzordeko presidentea.

2023ko martxoaren 7ko astea.

7- Bisita arkeologikoa Praileitz I haitzuloaren ingurunera.

Xabier Peñalver, arkeologian doktorea, Aranzadiko ikertzailea, eta hainbat argitalpenen egilea da.

2023ko martxoaren 14ko astea.

8- Bisita Urbasako basora, naturan atzeman daitezkeen irudiak ikusteko.

Tailerreko hiru kide izango dira gidak:

- . Fernando de Carlos, erretiratua.
- . Maite Martinena, pintura eta naturazalea (erretiratua).
- . Juanjo Laforga, erretiratua.

2023ko martxoaren 20ko astea.

9- Lore basatiak Donostiako hiri-ingurunean.

Gidak:

- . Udaleko Parke eta Lorategien Bulegoko ordezkari bat.
- . Juantxo Unzueta, tailerreko kidea eta lorezalea (erretiratua).

2023ko martxoaren 27ko astea.

10- Pagoeta parkea: Interpretazio-gunea, Agorregi burdinola eta parkeko zuhaiztia.

Pagoetako gidak eta Marko Sierra, ingeniari agronomoa.

2023ko apirilaren 18a, 19a eta 21a.

11- Bisita Gipuzkoako Klima Aldaketa Fundazioaren instalazioetara (Zubieta).

2023ko apirilaren 26a, 27a eta 28a.

Antolatzailea / Organizador:

Laguntzailea / Colaborador:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



**ETORKIZUNA
ORAIN**